

**EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

**ERREGISTROTIK ESKATUTAKO INFORMAZIO ESKAEREI ERANTZUNA
HAMAR EGUN NATURELEKO EPEAN EMATEKO BETEBEHARRA DELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko urriaren 19an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Informazioa eskuratzeko eskubidea zinegotzi garen aldetik dugun oinarrizko eskubide bat da, eta beharrezkoa dugu gobernuaren jardura fiskalizatu eta kontrolatzeko geure eginkizuna betetzeko.

Udal arauetan ezarrita daude egiteko hori bete dezagun behar dugun informazioa lortzeko bai prozedura, bai epeak (hamar egun natural). Geure aldetik, egin beharrekiko izapidea egin dugu, baina 2019ko abuztutik ez dugu eskuratu geure eginkizunak behar bezala eta eraginkortasunez betetzeko eskatutako eta behar dugun informazioa.

Zehatz-mehatz, 27 izan dira urriaren 2ra arte erantzunik gabe zeuden informazio eskaerak.

2020ko otsaileko udalbatzarrean, arazo bera zela-eta, kontrol mozio bat onartu genuen Udal Gobernuari eskatuz Udalbatza osatzen dugun zinegotzian informazioa eskuratzeko eskubidea errespetatu eta eskatutako informazioa araudiak ezarritako epe barruan eman zezala.

Gauzak horrela, urriko Zerbitzu Orokorren Batzordean berriz ere Gobernantzako delegatua interpelatu dugu. Delegatuak aitortu du joan den abuztutik 17 informazio eskaera erantzun gabe zeudela (interpelazioa aurkeztu eta batzordea egin bitartean, lehendik erantzun gabe zeuden zenbait eskaera erantzun zituen Udal Gobernuak).

Ezin dugu ulertu otsailean eztabaidatu genuen informazio eskubidea berriro oztopatua izatea eta bigarren aldiz zinegotzian informazioa eskuratzeko eskubidea errespetatu behar dela gogorarazi behar izatea.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkeztu du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udalbatza osatzen dugun zinegotzian informazioa eskuratzeko eskubidea errespetatu eta eskatutako informazioa araudiak ezarritako epean eman dezala.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, eskatutako informazioa araudiak ezarritako epean ematea ezinezkoa den kasuetan, eskaera egin duen taldeari atzerapenaren justifikazioa edo arrazoiak idatziz bidal diezaiola, informazio eskaera erantzunik gabe utzi ordez.

Donostian, 2020ko urriaren 23an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia